

» KONTZERTUA

Erritmoa eta emozioa



Montserrat Auzmendi del Solar

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak ekarri digu nortasun handiko eta karisma berezia duen musikari bat, Håkan Hardenberger tronpeta-jole suediarra hain zuzen ere. Eta, aldi honetan artista honen bi ikuspegi disfrutatzeko aukera izan genuen. Alde batetik bakarlari bezala, eta bestetik zuzendariaren lanetan. Bietan, distiratsua, nahiz eta, egia esan, bakarlariaren rola hobeto egokitzen zen haren ezaugarrietara. Teknika doi-doia dauka tronpeta-joleak, oso adierazkor eta gertua da publikoarekiko, eta freskotasan aparta du estilo guztietan. Osagai hauekin guztekkin izar bat egiten da, eta batzuetan horrelako izarrek gidari bat behar dute enpatea lortzeko orkestrarekin. Hardenbergerrek lan bikaina egin zuen orkestrarekin, egia da, baina agian suediarrek duen indarrak eta orkestraren kalitateak emaitza doi eta eleganteagoa lortuko zuten beste zuzendari batekin. Hau da nire hausnarketa guztiz pertsonala.

Estilo desberdinen paseoa egin genuen, ederra. Hasteko, Haydnen inozotasun faltsuaz gozatu genuen. *Kreazioaren Preludioa: kaosaren irudikapena* doi eta delikatua iritsi zitzaigun. Jarraian, *Tronpeta eta sokazko orkestrarako kontzertua mi bemol maiorrean* sendo eta adierazkorra entzun genuen. Hemen bai luzitu zen Hardenberger jauna. Garbitasunez jo zuen uneoro eta txunditu egin zuen publikoa hain famatua den hirugarren mugimenduarekin. Saioaren lehenengo zatia amaitzeko, konpositore beraren *22. Sinfonia, mi bemol maiorrean; Filosofoa* jo zuten, estilo garbi eta purua mantenduz.

Haydn, Takemitsu eta Lutoslawskiren obrak

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria eta bakarlaria:
Håkan Hardenberger
(tronpeta-jolea).

Gasteizko Principal Antzokia.
Otsailaren 5a.

Bigarren zatian, beste usain bateko musika entzun genuen. Töru Takemitsu konpositore japoniarrak *Paths* obra egin zuen Witold Lutoslawskiren omenez. Elkarrizketa berezi bat lantzen du Takemitsuk obra honetan. Tronpeta sordinarekin eta sordinarik gabe tartekatzen dira ariketa melodiko iradokitzaileak eginez. Hardenbergerrek, bere teknika izugarriari esker, interpretazio bikaina egin zuen. Lutoslawskiren *Orkestrarako kontzertua*-rekin amaitu zen emanaldia. Folklore, ehundurak, tinbre jokoak, klasizismoa eta abangoardia nahasten dira lan efektudun eta erakargarri honetan. Euskadiko Orkestrak, Håkan Hardenbergerren batutapean, irakurketa zinez kanporakoi eta distiratsua egin zuen. Oso ona. ■

Håkan Hardenberger tronpeta-jole eta orkestra zuzendari suediarra (*Malmö*, 1961).

